

## 6. BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezerearekiko harremana gauzarik garrantzitsuenetariko bat da, izan ere, bezeroa da gure zerbitzua aurrera eramateko bultzatzen gaituena.

Hainbat gauza egin ditzakegu bezeroak lortzeko:

- Web orrialde ulerterraza
- Prezioen konparaketa bezeroei merkeena eskaintzeko
- Publizitatea zilegizkoa izango da.

- Publizitatearen bidez erakarri ditzakegu hainbat bezero. Gehienetan publizitate hori prentsan, tabernetan, irratan, hizketaren bitartez ematen da.

Produktu berri bat egiterakoan publizitate onena normalean ahozkoa da, norbaitek zerbitzua frogatu eta gustukoa izatekotan ezagun bati kontatuko dio, ezagun honek beste norbaiti eta horrela hainbat pertsona desberdin izango dute produktuaren berri. Aurkezpen txartelak egiteko aukera "SERCO" izenarekin dago eta hauek tabernetan banatu bezeroak ikus dezaten.

- Bezeroak mantentzeko ezin dugu iruzur bat saldu, hau da, gure web orrialdea saltzerako orduan deskribatu dugun modukoa izan behar da.

Saltzerako orduan prezio egokia jarri behar dugu, hori marketing estrategia bat izango litzateke. Ofertak egitea noizbehinka sartuko litzateke estrategia honen barruan.

Web orrialdearen estetika aldatzearekin bezero berriak erakarri ditzakegu bai eta dauzkagunak mantendu.